

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko ekainaren 27a / 635. zenbakia



Arrasateko artistak,
indarberrituta, margotzeari
ekin dio eta erakusketa
jarri du Udalan

ORAIN ETA HEMEN: JENDE GEHIAGO IGERILEKUAN/10 • JAIK: SAN JUANEI GAINBEGIRATUA/6-8

AZALA: ALEX AZKARATE, ARGAZKIA: IKER BARANDIARAN

EDERTASUN GIDA/24




ARRASATE PRESS denon
artean egiten dugu.

**Mila esker, bezero, kolaboratzaile,
irakurle eta herritar guztioi.**

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak


KALEINKESTA/ Inguruko hondartzetara jueteko asmorik bai?



DIONI CABALLERO
Langillie



PETRI RAMOS
Etxekoandrie




OLATZ LARREATEGI
Langillie



ANTONIO DE LA FUENTE
Langillie



RUBEN CABERO
Langabie



ANDONI MAGUNAZELAIA
Langillie

Ez, ez dauket hamengo hondartzetara jueteko inungo asmorik. Uste dot galipotant kontuekin ondo informate gaizela; beste kontu bat da informaziño hori ondo dauen edo asmatutakue dan.

Uste dot juengo nazela, baiñe kontuz ibilli biherko gare; Donostiara jueten naz. Uste dot gutxi informetan daula: hasieran ondo informetan euen, baiñe oin pasau egin dala emuten dau.


Ez dot uste hondartzara sarri juengo nazenik. Landa alde-ra juengo naz. Informaziñue emuten daue, baiñe egi-xe dan... Zumaixa aldera eta beste hondartza askotara galipot mordue aillegau da.

Nik badauket hondartzara jueteko asmue, baiñe Mediterraneo aldera juengo naz, badaezpada be. Ez dakit ondo informetan dauen, baiñe hamengo hondartzak ez dauz bape ondo.

Bai, juengo naz. Azken egu-notan be egon naz hondartzan, eta galipota egonda be, ez naz askorik arduratu. Hankak baltzittute urteten gare uretatik, baiñe nik jueten jarraituko dot.

Oingo ez dauket hondartzara jueteko asmorik, baiñe, akaso, aurrerago juengo naz. Hala be, ez dot uste egixe esaten dabitzenik, hondartzetan ondiokan be galipot asko dau-eta.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK FERIXALEKUKO FUTBOLERAKO ATEAK Herriar batzuek aditzera eman dutenez, Ferixalekuko ikastolan futbolerako dauden ateak jausiz gero istripua egin dezakete. Ate horiek kontrapisuak dituzte, baina gidari batzuek autoak aparkatzeko eta ume batzuek jolas egiteko, sarritan kontrapisuak mugitu egiten dituzte. Horren harira, Arizmendik kontrapisuak zainduko dituela esan du.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 9

KIROLA / 13

KULTURA / 14

Azokako saltokiak

Uztailaren 11n bukatuko da Azoka plazan hutsik dauden saltokiak errentan hartzeko epea,

Arrazolako Gizon Probak

Arrasateko eta Atxondoko koadrila bik, bigarren aldiz, Gizon Probak egin dituzte.

Punta-puntako abeslariak

Arrasateko hiru abeslari Euskal Herriko Haur Kantu Txapelketako finalean lehiatu ziren.

ASTEKODATUA

607

LAGUNEK ERABILI ZUTEN IGERILEKUA

Musakolako kiroldegiko kanpoko igerilekua zabaldu eta lehengo domekan 607 lagun ibili ziren. Hortaz, argi dago arrasatearrek gustura hartu dutela kanpoko igerilekua zabaltea.

BESTEKEKESANA

“Mondragon Unibertsitateak badu pentsamendu propioa. Kritikagarria, inperfektua, baina ezin da ukatu, ikuspuntu iraultzaile batetik, eztabaidarako aspektu oso interesgarriak eskaintzen dituela (...). Badakit mugimendu kooperatiboa diruaren menpe dagoela, kapitalismoak izugarri baldintzatzen duela, eta askotan bizirautearekin ere nahikoa zeregin dagoela. Baina hori ez da aitzakia, kooperatibismoak abiapuntuan ezarritako oinarri, helburu eta ikuspuntuak ondorengo belaunaldiei ez transmititzeko, kapitalismoaren bariante batean bilakatu nahi ez bada. Mugimendu kooperatiboa kontrasesanean bizitzera kondenatua dago, baina kontraesanak ezagutzen baditu, leundu ahal izango ditu”

ARITZ OTXANDIANO
'GARA' / 03-06-17

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Zabalo



Reala

Honako idatzia egiten hasi naizen momentuan ez dakit Realak liga irabazi duen ala ez. Gaur domeka da, ekainaren 22a, eta gaur gauean jokatu du Errealak bere partidua.

Gauza pare batek deitu dute nire arretea denboraldi bukaera horretan. Lehenak ilusioarekin du zerikusia. Realak ilusio sortzaile bihurtu da, aspaldian ikusi ez dudana ilusioa sortu du jende askorengan. Normala izan daiteke agian, azken denboraldiak zelan joan diren ikusita, jendeak poz handiz ikusi du liga irabazteko aukera. Eta jendeak ilusio hori modu askotara erakutsi du: Realaren ikurrinak balkoietan jarrita, kamiseta txuri-urdina jantzita, berba egiterakoan... Zoriontzekoa da benetan ilusio hori jendeari ematea. Ilusioz bete gaitu Realak oraingo denboraldian. Posible balitz beste era bateko ilusioak ere eskatu nahi nituzke, eta ez nabil kirol arloaren gainean.

Beste paradoxa bat ere aipatu nahiko nuke. Realak liga irabazi gura badu, Athleticek lan ona egin beharko du Madrilan. Betiko aurkariaren esku da oraingoan Realak. Arraroa da bizitzan aurkariari mesedeak eskatzea, hainbat arlotan hori ezinezkotzat jotzen da-eta.

“Gaur egun ez da ohikoa aurkariari mesedeak eskatzea, hainbat arlotan halakoak egitea ezinezkotzat jotzen da-eta”

Agian kirolak bi jarrera horiek erakuts diezaguke: ilusioz bizitzearena eta aurkakoa lagun bihurtzearena.

Azkenean partiduak amaitu dira, eta Realak ez du ligarik irabaztea lortu. Ez dakit zer aldatu den Realean aurreko urtetik oraingo urtera. Badakit entrenatzaile berria duela, jokalar berri batzuk ere etorri direla, baina ekipo bat ez dira bakarrik entrenatzailea eta hiru edo lau jokalar. Aldaketa sortu duen horiei, eskerrak eman nahi nizkieke guztioi poza emategatik. Realak bigarren geldituta ere jendea pozik dago eta arrazoi osoz gainera.

Mila esker eta aupa Errealak.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 27**
Español. Araba etorb. 17 943 79 18 65
- ZAPATUA, 28**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- DOMEKA, 29**
Corcuera. M. Aranbarri 1..... 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 30**
Zabala. Zarugalde 42..... 943 77 16 30
- MARTITZENA, 1**
Azkoaga. Iturriotz 943 79 79 99
- EGUAZTENA, 2**
Corcuera. M. Aranbarri 1..... 943 79 22 26
- EGUENA, 3**
Irizar. Erguin 11..... 943 79 12 39
- EGUBAKOITZA, 4**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelenehantik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa
- Arrasate**
Astelenehantik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea. 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZIA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAI LEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza ... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Uztailaren 3an, eguenean, *El jardín de la alegría* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

AZOKAKO SALTOKIAK
Azokan hutsik dauden saltokiak hartzeko eskaintzak aurkezteko epea erabakita dago: datorren uztailaren 11 baino lehen.

ANTZERKI IKUSKIZUNA
Uztailaren 11n, eguaztenean, Pikor Teatro antzerki taldeak *Al fondo a la derecha* ikuskizuna eskainiko du. 19:30ean izango da, Herriko Plazan.

MUSIKA KALEJIRA
Uztailaren 18an, eguaztenean, Donostiako Mac Jeara's Band taldeak Arrasateko kaleetan zehar *marching* kalejira egingo du.

FOLKLORE DANTZA EMANALDIA
Uztailaren 23an, astelehenean, nazioarteko folklore dantza emanaldia egingo dute Monterron parkean. 22:30ean izango da.

MERKATARIENDAKO IKASTAROKAK
Merkataritarako Laguntza Teknikorako Bulegoak ikastaro bi antolatu ditu Elikagaiak Erabiltzeko Txartelak lortzeko. Ikastarotetan izena emateko deitu 943 79 30 90 telefonora.

AEDren AGENDA

'EGUNKARIA'-REN ALDE
Egunkaria berriaren aldeko herri batzordeak *Berria*-ren aldeko akzioak eta materiala saltzen dihardu. Kalean aurkituko dituzu salmentamahiak.

EUSKAL HERRIA ZUZENEAN
AED gazteak Arrosara Euskal Herria Zuzenean jaialdira lanera joateko autobusa antolatu du. Deitu 943 77 12 28 telefonora.


URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Okupatzaileek ez zuten Ferixalekutik joan gura

Ferixalekuko ikastetxeko etxe-okupatzaileek ez zuten etxebizitzak husteko epea bete. Osoko bilkuran, okupatzaileek handik ez botarazteko mozioa aurkeztu zuten, eta Udalak eraikuntza eskuratu eta baliabiderik ez dutenei uzteko eskatu zuten. Bozketan atzera bota zuten eskaera.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Katamixarra"

Urtxintxa, kolore nabarreakoa bereziki.
—Bat nabarraua dok, da beste bat gorrixaua; oni katagorrixa, da nabarri katamixarra.



GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Irratiko mikrofonoak kalean izan dira jaietan, eta Arrasate Irratiak udako arropak jantzi ditu

San Juanetan Arrasate Irratiak mikrofonoak kalera atera ditu, zuei zuzen-zuzenean kaleko giroaren berri emateko. Horrez gain, jaietako protagonistak estudioan izan dira. Bestek beste, Benito Lertxundi, Joseina Etxeberría, Trapu zaharra, Txatxilipurdi, Arrasate Musikal, Genaro Lekuna, Inazio Lakuntza, Trikitixa Eskola eta koadrilak.
Edozelan ere, irratiak egun horietan albiste izan diren beste albiste batzuk ere landu ditu: Reala, Rolling Stones, *Berria* egun-

karia, eta beste batzuk.

UDAKO PROGRAMAZIOA

Astelehenean udako saioak hasiko dira. Neguko arropak erantzi eta irrati freskoagoa egingo dute. Estudiotik irten eta uraren ziprizek freskatuko dituzte eguzkiak berotutako mikrofonoak. Horrez gainera, Euskal Herriko hainbat txokotara hurreratuko dira, entzuleok beste herri batzuk ezagut ditzazuen. Eta Udako Euskal Unibertsitatearekin bat egingo dute egunero.

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 20	12 °C
MAXIMOA Zapatua, 21	40 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	11,9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 18	24 °C	16 °C	— l/m²
Eguena, 19	28 °C	14 °C	— l/m²
Egubakoitza, 20	37 °C	12 °C	— l/m²
Zapatua, 21	40 °C	16 °C	— l/m²
Domeka, 22	39 °C	14 °C	— l/m²
Astelehena, 23	24 °C	18 °C	11,4 l/m²
Martitzena, 24	27 °C	18 °C	0,5 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA

09:00-11:00
UDA GIROAN Albisteak.
Elkarrizketak.
Hondartzen, igerilekuen eta urtegien egoera.
Eguraldi iragarpena.
Udako Euskal Unibertsitatea.
Agenda.
Euskal Herriko txokoak ezagutzeko aukera.

11:05
Musika.

12:05
Arrasate Irratiako albistegi laburra.

13:00
Euskadi Irratiko albistegi laburra.

14:00
UDA GIROAN errepikapena.

19:00, 21:00, 23:00
Arrasate Irratiko albistegi laburra.

ASTEABIHITZETAN

Gas naturaldun aire girotua


Gas naturala erabiliko duen etxerako aire girotua egiten dabilta Arrasateko Garaia ikerketa gunean. Hain zuzen, Rotartika enpresa dabil makina hori diseinatu guran. Orain dela hamar urte hasi ziren makina horrekin bueltaka. Eta, orain dela gutxi, Fagor eta Gas Natural enpresek Rotartika izeneko enpresa sortu zuten. Hala, makina berria egiteko lanak nahiko aurreratuta doaz, eta datorren urtean salgai ipintzeko asmoa dute. Esan beharra dago egon badaudela gas naturala erabiltzen duten aire girotuko makinak, baina lantegietarako-eta erabiltzen dira, eta oso handiak dira.

'Berria' egunkariaren aldeko ekimenak

Sanjuan jaiak aprobetxatuz, *Egunkaria*-ren aldeko Arrasateko taldeak astelehenean, martitzenean eta eguaztenean mahaia ipini du. Besteak beste, *Egunkaria*-ren eta *Berria*-ren aldeko materiala egon da salgai, eta bestetik, panel bat ipini dute, argazkiekin osatuz joateko. Hala, 500 argazki batu gura izan dituzte, gero bai *Berria*-n baita *Goienkaria*-n ere panel horren argazkia argitaratzeko. Horrez gainera, esan beharra dago akzioen bitartez dagoeneko 30.000 eurotik gora (helburu osoaren %40) batu dutela Arrasaten *Berria* egunkariaren alde.

Arrasateko Trikitixa Eskolako diskoa

Aurreneko diskoa aurkeztu zuten Trikitixa Eskolakoen joan den aste bukaeran. Euskal Herriko jaietan eta batez ere Arrasatekoetan horrenbestetan entzundako kantuak jasotzen ditu diskoak: *Errementari Dantza*, *Maritxu*, *nora zoaz?*... Horiekin batera, kantu berriak ere sartu dituzte. Guztira 35 lagunek hartu dute parte diskoan; Maixa Lizarribar irakasleak esandakoaren arabera, ikasleen eguneroko lanean oinarrituta egin dute disko hori.



Arrasateko Udala eta Goiena

Urteroko hitzarmena sinatu dute Udalak eta Goiena Komunikazio Zerbitzuek. Hitzarmenaren arabera, Goienak 300.000 euro jasoko ditu euskalgintzaren eta komunikazioaren arloan egiten duen jardunerako. Goienako presidente Estepan Plazaolak eta Inazio Lakuntza alkateak sinatu zuten.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Jaiei buelta eman behar

Gaur, egubakoitza, zuetako batzuek biharamuna izango duzue. Beste batzuek, berriz, lanean igaro ditugu jaiak. Eta beste multzo handi batek Arrasatek kanpo igaro ditu egun horiek.

Zenbait herritarrek San Juanetan kanpora jotzearen kontua urterokoa da, baina egutegiaren arabera, urte batzuetan areagotu egiten

da, aurten moduan. Zapatuan eta astelehenean eta gainontzeko egunetako ekintza zehatzetan izan ezik, jende gutxi ibili da kalean. Eta tabernari eta dendari asko kexatu egin dira.

Egia esanda, Mondragon Unibertsitateak San Juanen ostean azterketak egiteak eta kooperatibak langileei jaiegun mordoa emateak ez diete jaiiei askorik laguntzen.

Dena dela, kanpora joateko erabakia herritarrena da, eta norberak askatasuna du gura duena egiteko, noski. Azkenean, kanpora jotzearen eta jaietan oso jende gutxi gelditzen den kontu hori gurpil zoro bilakatu da.

Horrela jarraituz gero, tabernari batzuek behin baino gehiagotan egin duten proposamena kontuan hartu beharko dugu: Bizkaian egiten duten moduan San Juanak bi asteburutan ospatzea, hain zuzen ere.

ASTEKOIRUDIA



ANDER GILLENIA

DANBORRADAKO GIZON ETA EMAKUMEEK AURRE EGIN ZIOTEN EURIARI ETA TXINGORRARI

Arrasateko San Juan jaietan erronka askori aurre egin beharra dago. Horrela egiten dute trikitilariak, dantzariak, gaitariak, kilikiek eta beste talde askok. SUDCek ere lan handia egin behar izaten du danborradarako partaide kopuru minimoa lortzeko. Egia esanda, danborradako partaideak gogotsu

irteten dira kalera jotzera, baina aurten ezusteko zaparrada jaso zuten. Euria aurretik hasi zen arren, danborrada Herriko Plazara heldu zen unean, izugarrizko euri zaparrada eta txingorra izan zen. Hala ere, irrintzi batzuk bota eta gogor eta ilusioarekin segitu zuten jotzen. Txalogarria! /I.B.

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE


TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 - 79 78 14
ARRASATE




Zapatuan kontzertu itzela antolatu zuten Monterronen, eta lagun asko hurreratu ziren. Argazkian, Sex Museum taldea.



Arrasatearrek gustura ikusi zituzten ume dantzarien ekitaldiak.



Koadrilek ahalegin handia egin dute jaiak girotzeko. Makala altxatzeko unean trebezia handia erakutsi zuten.



Arkulariek ikusmina piztu zuten, eta herritarrek arku tiroan egiteko aukera izan zuten.

Jende gutxi baina egitarau oparoa Sanjuanetan

Jenderik eza. Horixe izan da Sanjuanetako ezaugarri nabarmena. Gaupasazale gutxi ikusi ditugu. Eta, egunez, ekitaldiren baten zein bestean izan ezik, oro har, larregiko lasaiak izan dira herriko jaiak. Galdetu, bestela, tabernariei eta lanean ibili diren dendariei!
Zapatuan eta astelehenean ibi-

li da jende gehien. Ekitaldiei dagokienez, adibidez, aurreneko aldiz egin den *skate* jaiak jende dezentetarako du, hemendik bertatik baita kanpotik ere. Bestetan moduan, eta arazoak arazo, herritar ugari entzun zuten Salbea astelehenean; eta, jakina, ia inork ez zuen kalerik egin Errementari Dantzaren hitzorduan. Arrasate


Musikalek, betiko moduan, Monterrongo harmailak bete-bete egin zituen. Gauza bera egin zuen Benito Lertxundik, zelan ez! Nagusiak pozik ibili ziren mariachiekin, eta umeak ezin gusturago Eguzkilaruk ekarritako jolasekin. Euriaren aurrean tinko eta makurtu barik eragin zituzten atabalak danborrariak. Eta, jakina, goize-

an goiz bigantzek izan zuten zale gehien. Gazteriari dagokionez, gaurtxoriak gehienak, txosnetan eta tabernetan kontzertuak entzuten ibili ziren eurretako asko; eguaztenean, koadrilen bazkarian, eta seguru aski gaur, egubakoitza, biharamunean murgilduta.
ARGAZKIAK: ANDER GILLENEA
ETA ARRASATE PRESS.

San Juanetako egitarauko zenbait ekitalditan mila lagunetik gora parte hartu zuten



DANBORRARI AUSARTAK Urtero moduan, San Juan bezperan, astelehenean, herriko hainbat gizon eta emakume danborrari lanetan irten ziren herriko kaleetara. Eguraldiak ez zuen askorik lagundu, eta danborrada Herriko Plazara iritsi ahala, euri zaparrada areagotu egin zen. Ikusleetak askok alde egin zuten eta geratu zirenek plazako aterpeak bete zituzten. Txingorra ere egin zuen, baina danborrariak ez ziren kikildu, eta irrintzi artean jotzen segitu zuten. Hori da ausardia erakutsi zutena!



DRAGOI TXULETAK UARKAPEN EMAN ZITUZTEN San Juan bezperan, gauean, bota zuen zaparrada kontuan hartuta eta eguraldi aldrebesaren eraginez, antolatzaileek Dragoi Jana Uarkapen egitea erabaki zuten. 430 lagun inguru batu ziren dragoi txuletak jateko asmoz, baita egin ere. Nabarmendu beharra dago, inoiz ez bezala, eserleku gutxi batzuk hutsik gelditu zirela. Txalaparta doinuek eta irrintziek alaitu zuten urteroko hitzordu berezi hura, eta ez dago zalantzarik han bat egin zutenek ederto afaldu zutela.



SALBE ISTILUTSUA Aurreko urteotan moduan, San Juan bezperan, astelehenean, alkateak eta zinegotziek San Juanen irudia San Juan Bautista elizara eraman zuten. Horren aurrean, herritar talde batek iragarri zuen alkateari eta zinegotzi berriei protesta egingo zirela. Hainbat lagun *Eman hitza herriari* leloarekin pankarta atzean jarri ziren, eta zenbaitzuek arrautzak bota zizkieten udalbatza berria osatzen duten politikariei. Hala ere, jende askok entzun zuen meza San Juan Bautista elizan.



Aurten ere Bizkaiko El Despiste txarangak koadrilekin bat egin du.



Mariachien doinuek eta janzkerak txundituta utzi zituzten arrasatear asko.




Arrasateko San Juanetan ezin dira falta dragoia eta sua, biak bat dira-eta.



Aurten Errementari Dantzak 10 urte bete ditu, eta gogoz egin zuten dantzan.





Zailtasunak zailtasun, Erraldoi eta Kilikien Konpartsa indarberrituta irten da Sanjuan jaietan.



Benitoren moduan, Arrasate Musikalekin ere jende mordoia egon zen Monterroan



Arkupean egin zuten koadrilek bazkaria, *Olinpi-poteo* eta guzti.




Abaroakoak ere murgildu ziren jaietan; besteak beste, omenaldia jaso zuten nagusienek: Brigida Monje eta Juan Loitik.



Iluntzean, tabernarien eskutik, denetariko musika entzun zen tabernetan, zuzenean.



Benito Lertxundik bete-bete egin zituen Monterrongo harmailak, eta jendea pozarren geratu zen haren saioarekin.



Eguzkilaruk jolas mordoia ekarri zituen Arrasateko umeendako.



Udaltzaingoa gordetzen dituzte galdutako txakurrak Bergarara eraman baino lehen.

ENEKO AZKARATE

ZERBITZUAK/ Udalaren eta Elurra txakurtegiaren arteko hitzarmena

Galdutako txakurrak batzeko eta zaintzeko zerbitzua

U.M.

Arrasateko Udalak hitzarmena sinatu du Elurra izeneko txakurtegiarekin, galduta dabilen txakurrak jasotzeko. Ia 5.000 euroko kontratua sinatu dute zerbitzu hori emateko. Hala, galduta dabilen txakurrak Udaltzaingoa jaso eta Bergarako egoitzara eramango dituzte.

Arrasaten, kalean, galdutako itxura duen txakurren bat ikusiz gero, Udaltzaingora eraman edo hara deitu beharra dago. Izan ere, hitzarmena sinatu du Udalak Bergarako Elurra txakurtegiarekin, urtebeterako.

Kontratu horren arabera, kalean aurkitutako txakurrak txakurtegiara eramaten dituzte, eta han, jabea agertu arte zain-

du egiten dituzte; hori bai, legeak esaten duenari jarraituz, asko jota hilabetez. Epe horretan jaberik agertu ez bada, txakur gehienak akabatu egiten dituzte.

Dena dela, Arrasateko Udalarekin sinatutako kontratuaren arabera, txakurra akabatu baino lehen, Elurra txakurtegi-koek euren eskuetan dagoen guztia egin beharko dute txakurra jabea aurkitzeko edo txakurrrari beste jaberren bat aurkitzeko.

ZERBITZUAREN NONDIK NORAKOAK

Elurra txakurtegiaren betebeharrak honakoak izango dira, besteak beste: Udaltzaingoa dauden txakurrak batu; eta gero, animaliak txipa badu, hura erabili identifikatzeko. Horren harira, esan beharra dago txakurrak

txipa badu, normalean 24 orduan haren jabea aurkitu ohi dutela.

Horrez gain, txakurtegiak bisitaldi orduak ditu. Ordu horietan edozein joan daiteke txakurrak ikustera, eta, bat edo bat aukeratuz gero, etxera eraman dezake. Astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:00etara egoten da zabalik txakurtegia.


URTE BI

Hirugarren urtez erabiliko du Udalak Bergarako txakurtegiaren zerbitzua. Udaleko Zerbitzu batzordeak emandako informazioaren arabera, azken urte biotan 30 txakur eraman dituzte txakurtegiara, eta horietatik zortzi jabeei bueltatu dizkiete, eta bederatzi adopzioan eman dituzte.

Emun eta euskalgintza batera

Joan den astean hitzarmena sinatu zuten Emun elkarteak eta AEDk (Arrasateko euskalgintzaren izenean). Hain zuzen, hitzarmenaren helburua da Emun-eko langile Leire Bergarak dinamizatzaile lanak betetzea Arrasateko Euskararen Plan Estrategikoan. Hau da, Euskararen Plan Estrategikoa garatzea da hitzarmenaren helburua.

Emun-eko kudeatzaile Dani Larreak, AEDko presidente Joseba Ezpeletak eta Leire Bergarak berak sinatu zuten hitzarmena.



Azokako saltokiak esleitzeko epea bukatzeaz dago

U.M.

Datorren uztailaren 11n bukatuko da Azoka plazan hutsik dauden saltokiak alokatzeko proposamenak aurkezteko epea. Hamar saltoki daude aukeran, bost finkoak eta beste bost bereziak.

Saltoki finkoen artean, oinetakoak edota aterkiak saltzeko, gatzak saltzeko, taberna ipintzeko, egunkariak saltzeko eta harategi moduan erabiltzeko saltokiak eskaintzen ditu Udalak. Saltoki berezien artean, berriz, ardoak-eta saltzeko, gozogintzako produktuak saltzeko, frutak eta barazkiak sal-

tzeko eta garaiko produktuak saltzeko saltokiak eskaintzen ditu, besteak beste. Hala, saltoki finkoak (astelehenetik zapatara, biak barne) 2010era arte esleitu dituzte Udalak. Eta saltoki bereziak (eguztinetan eta egubakoitzetan edo astelehenetan, martitzenetan edo eguenetan) 2005era arte, 2010era arte luzatzeko aukerarekin.

PREZIOAK

Salneurriei dagokienez, saltoki finkoetarako, gutxienez, 180 euro/m²-ko eskaini beharko da. Saltoki berezietan, eguztinetan egubakoitzetarako, 30 euro/m²-ko eta gainerakoetan, 15 euro/m²-ko.

LABUR

Itoizko urtegiaren kontrakoei laguntzeko taldea sortu dute Arrasaten

Joan den astean Itoizko etxeak bota egin zituztela-eta, protesta ekimenak egin zituzten bai Nafarroan, jakina, baita hemen ere. Hain zuzen ere, urtegiaren kontra lanean dihardutenei laguntza emateko taldea sortu dute Arrasaten. Hala, joan den egunean, hilak 19, ikus-entzunezkoa eman zuten Monterronen, Itoizko urtegia salatzeko 1999tik 2000ra bitartean European barrena egindako bira laburbiltzen duena. Horren ostean, joan den astean Itoitzen izan zen solidarioetako batek hartu zuen hitza, eta azken egunotako gertakarien berri eman zuen. Horrez gainera, Arrasaten sortutako taldeak jakinarazi zuen, besteak beste, dirua batzeko asmoa dutela, solidarioei laguntzeko. Bestalde, oraingo astean Santa Barbara parkean panpina bi lotu dituzte zuhaitzetara, Itoitz ipintzen duen idatzi banarekin.

1984an onartu zuten urtegia egitea. Urtebete geroago urtegiaren kontrako koordinadora sortu zuten. 18 urte dabilza kontra egiten.

Asfaltatze lanak egingo dituzte, eta lurra aldatzeko lanekin segituko dute

Joan den hilean alde zaharreko zenbait lekutako lurzorua jasotzen hasi ziren. Helburua da orain arteko lurzoru mota kendu eta beste bat ipintzea. Izan ere, lurzorua bustita dagoenean labaintzeko arrisku handia egoten da zenbait lekutan, batez ere aldapan beheara. Hala, Udaleko Hirigintza batzordetik jakinarazi digutenez, lanak bide onetik doaz, eta, aurreikuspenen arabera, hilabete barru-edo bukatuko dituzte.

Hain zuzen ere, alde zaharreko kantoietako eta Ferrerias eta Iturriotz kaleetako lurzorua aldatzen dabilza. Horren ondorioz, kaleren bat edo beste ixten dabilza, eta autoen joan-etorria desbideratu egin behar izan dute.

Bestalde, oraingo astean, asfaltatze lanak direla-eta, Gelmako bidegurutzetik Santa Marinako bidegurutzerainoko errepide zatia itxi egin dute. Aurreikuspenen arabera, lanok atzo, eguena, bukatu behar zituzten.

GIZARTEA / Kanpoko igerilekuak

Galipota dela-eta, jende gehiago dabil kanpoko igerilekuan

U.M.

Orain dela pare bat aste bukaera zabaldu zituzten Musakolako igerilekuak, eta esan beharra dago bestetan baino jende gehiago dabilela. Euskal Herriko hondartzan egoerak eta Bergarako igerilekuen faltak eragin dute jende kopuruak gora egitea.

Jeneralean, domeketan ez da jende askorik joaten Musakolako kanpoko igerilekuetara, askok gurago izaten dutelako eguna kanpora joateko aprobetxatu. Baina aurten egoera bestelakoa da. Hala igarri dute, behintzat, Aukeako arduradunek. Ramon Jauregik kontatutakoaren arabera, igerilekuak zabaldu eta aurreneko domekan 607 lagunek erabili zuten kanpoko igerilekua (horietatik 25 kanpokoak ziren). Hark uste du horren zergatia dela hondartzak galipotez zikinduta daudela eta Bergarako igerilekuak itxita daudela. Hain zuzen ere, emandako datuen arabera, aurten 1.000 lagun baino gehiagok txartel bateratua dute; hortaz, Musakolako igerilekuak erabiltzeko eskubidea dute. Horiez gain, azken egunotan 240 lagunek kiroldegiko abonua egin dute, horietatik 214k udakoa (iaz, guztira, 405 abonua egin zituzten). Eta eguraldi onak segitzen badu, denborarekin geroz eta jende gehiago abonatu dala igerilekura.

MUGAK

Horren harira, Ramon Jauregik esan digu orain arte ez dutela kanpoko igerilekuetarako jende mugarik zehaztu, baina akaso aurten zerbait asmatu beharko dutela. Aukeako egindako aurreikuspenen arabera, 1.500 lagun litzateke topea; hortik gora igerilekuko giroa jasangaitza izango litzateke.



UBANE MADERA

Udako abonua eginez gero, igerilekuak, sauna eta lurrin bainua erabiltzeko aukera dago

ABONUAK ETA ORDUTEGIA

Udako abonua eginez gero, igerilekuak, sauna eta lurrin-bainua erabiltzeko aukera ematen du. Hiru motatako abonua daude: 20 urtetik beherakoendako (25,25 euro); 20 urtetik gorakoendako

(42,25 euro); eta familiarra, 20 urtetik beherako seme-alabak dituzten familiendako (66,25 euro).

Kanpoko igerilekuak datorren irailaren 14ra arte egongo dira zabalik. Goizean zabalitzen dituzte eta iluntzera arte erabil daitezke, 09:30etik 20:30era, egunero, baita jaiegunetan ere.

GOMENDIOAK

Barruko igerilekuan ez bezala, kanpokoetan buruko txapela ez da derrigorrezkoa; Aukeako arduradunek, ordea, txankletak erabiltzea eta uretara sartu baino lehen dutxatzea gomendatzen dute, batez ere norberaren higienerari begira.

LABUR

Merkatarientako ikastaroak antolatu dituzte, elikagaiak erabiltzen erakusteko

Merkataritzarako Laguntza Teknikorako Bulegoak ikastaro bi antolatu ditu. Hain zuzen, Elikagaiak Erabiltzeko Txartelak lortzeko ikastaroak dira: bata, Arrisku Txikiko Elikagaiak Erabiltzeko Txartelak lortzeko; eta bestea, Arrisku Handiko Elikagaiak Erabiltzeko Txartelak lortzeko. Arrisku txikiko elikagaiekin lotutako ikastaroa hiru ordukoa izango da, egun berean egiteko, uztailearen 22an, 13:30etik 16:30era; batez ere janari denbei zuzenduta dago. Arrisku handiko elikagaiekin lotutako ikastaroa, berriz, egun bikoia izango da, uztailearen 16an eta 17an, eta ordutegia zehaztu barik dago. Ikastaroak batez ere, ostalariei dago zuzenduta. Ikastaroetarako izena emateko deitu 943 79 30 90 telefonora. 45 bat euro balioko dute ikastaroak.



Material berria erabiliko dute Industria Erakusketan

U.M.

Industria Erakusketak aldakorra izan behar zuela iragarri ziguten sorreran, eta hala ari da izaten, duda barik. Orain gutxi gehitutako tornuari eta eskulturari, bisitaldi gidatueta-ko materiala gehitu behar zaie.

Dagoeneko 3.000 lagunek bisitatu dute Industria Erakusketa; horietako askok bisitaldi gidatuen bitartez (Institututik, kanpoko ikastetxetik, UNEDetik, enpresetatik...). Baina, orain arte, bisitaldi gida-

tuak aurrez prestatutako material barik egin dituzte.

Bada, Isabel Aramendia arduradunak adierazi digunez, datorren ikasturteko aurrera (irailetik aurrera), DBHko eta Batxilergoko ikasleei zuzendutako materiala izango dute. Material dinamikoa eta atsegina egin gura dute, eta horretarako, besteak beste, ikasleei laguntzeko maskota eta guzti asmatu dute: *Biratsu*.

Horrekin batera, erakusketaren gaineko gida plazaratu dute, erakusketaren berri zehatzago emateko, batez ere kanpokoel.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



BARTZELONAN IKASI ETA IKUSI EGIN DUTE ARIZMENDIKOEK

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako eraikuntzako ikasleak Bartzelonan egon dira lau egunez. Besteak beste, bi urtean behin eraikuntzaren arloaren gainean egiten den

Construmat azoka bisitatzeko aukera izan zuten eguenean eta egubakoitzean. Zapatuan eta domekan, berriz, turista mozorroa jantzi eta Bartzelonako leku ezkutuak bisitatzeko ibili ziren.



ZABORRAREN GAINEKOAK GERTUAGO UDALAN

Ingurugiro Eskolak antolatutako Zabor urri, bizi berri kanpainan hartu dute parte argazkiko neska-mutikoek. Urtarrilean hasi ziren, eta ekainean bukatu. Eta gauza asko ikasi dituztelakoan gaude: zaborraren tratamendua, edukiontzien funtzionamendua, birziklapena... Horrez gainera, Lehen Hezkuntzako ikasleek Mural Lehiaketan hartu dute parte: Aretxabaletako Herri Eskola nagusitu zen (goian) eta bigarren Arrasate izan zen (behean). Bigarren Hezkuntzakoak, berriz, Lelo Lehiaketan ibili ziren: Almenek irabazi zuen, Zaborra murriztu, mundua berpiztu leloarekin.





ANDER GILLENEA

Finala ikusgarria izan zen, eta hirugarren eta laugarren postuetatik borrokan ibili zirenek ere erakustaldi polita egin zuten.

PILOTA

Koadrila arteko finalean Iñigo eta Isturiz 22-16 nagusitu ziren

Zapatuan San Juan Txapelketako finalak jokatu zituzten Uarkapen

XABIER URZELAI

Herriko jaietan gura beste pilota partidu izaten da beti, eta aurten ere horrela izan da. Jaietako pilota festibala orain dela bi aste jokatu zuten, eta San Juanetan herriko pilotariekin gozatzeko aukera egon da. Koadrila Arteko Txapelketa, batetik, eta San Juan Txapelketako finalak, bestetik.

Zapatuan, Arrasateko Pilota Taldeak antolatuta, San Juanetako finalak izan ziren jokoan. Final horietan 8, 9, 10 eta 11 urte arteko pilotariak izan ziren, leku askotatik etorriak, gainera: Elgeta, Antzuola, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Azkoitikoak, besteak beste. Maila horietako finale-

tan Arrasateko pilotariak ere izan ziren. Txapelketa horretan, gainera, 12 urtekoek ere jokatu zuten finala, baina final hori Arrasateko pilotarien artean izan zen. Finalak ikusgarriak izan ziren, eta pilotari gazteek maila polita daukatela erakutsi zuten.

KOADRILA ARTEKO TXAPELKETA

Zapatuan Koadrila Arteko Txapelketako finalerdiak egon ziren jokoan, eta astelehenean izan zen finala. Finala jokatu aurretik, baina, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko Txori-k eta Berasak Garitaonandia anaien kontra neurtu zituzten indarrak. Zeingehiagoka parekatua izan zen. Txori-k eta Berasak sei tantoko aldea izan zuten, baina Garitaonandia anaiek partiduari eutsi

eta hurreratzea lortu zuten. Azken tantoak gogorak izan ziren, partidua luzea izan zen-eta. Azkenean, baina, Txori-k eta Berasak eskuratu zuten hirugarren postua (22-19).

Lehenengo partidua jokatu eta gero etorri zen finala. Txapelketako bi bikote onenak nor baino nor gehiago: Iñigo eta Isturiz, batetik, eta Poke eta Txaima, bestetik. Aurreko partidua estua izan zen, eta finalean ere indarrak pare-parean egon ziren. Bi bikoteetako inork ez zuen nagusitasun garbirik erakutsi, baina Iñigok eta Isturizek abilitate handiagoz jokatu 22 tantoak egin zituzten (22-16). Txapelketa arrakastatsua izan da; ea datorren urtean ere txapelketa hori antolatzen diren.

Mondra emakumeen talde barik geratzeko arriskuan dago

Denboraldia biribila izan da Mondra futbol taldearendako. Erregional mailakoak preferente mailara igo dira, eta gazte mailakoak Euskal Ligara igotzeko puntuan egon dira. Emakumeen taldeak ere denboraldi polita egin du, baita gainerako taldeek ere. Guztia, baina, ez da albiste ona; izan ere, Mondra futbol taldea emakumeen talde barik geratzeko arriskuan dago. Aurtengo tal-

deko neska askok taldea utziko dute, kasu gehienetan kanpora doazelako ikastera, eta ezinezkoa izango zaielako entrenatzera joan eta asteburuetan partiduak jokatzea. Emakumeen taldea hankamotz geratu da, eta taldera jokalarri berriak joaten ez badira, Arrasateko emakumezko futbol taldea galduko luke, orain dauden jokalariekin ezinezkoa delako Liga Txapelketari aurre egitea. Mon-

drakoak arduratuta daude; hori esan digu presidente Jose Luis Ezkurrak: "Penagarria izango litzateke Arrasate emakumezko futbol talde barik geratzea. Taldea aurrera ateratzeko gutxienez zortzi edo bederatzi jokalarri behar ditugu". Arrasaten futbola atsegin duen neska piloa dago, baita futboleko ondo egiten dutenak ere. Ea taldeak aurrera egiten duen.

Arku Tiroketa Txapelketako lehenengo jardunaldia

X.U.

Domekan Arku Tiro Txapelketako lehenengo jardunaldia jokatu zuten Zaldibarren, eta Arrasateko SP-10 taldea laugarren izan zen. Durangoko arkulariak izan ziren lehenengo jardunaldian onenak. Bigarren Etxabarriko taldea izan zen. Eibar izan zen hirugarren eta Arrasate laugarren. Txapelketa Robin Apple modalitatekoa izan zen, modalitate ikusgarriena, hain zuzen ere. Modalitate horretan, arkulariak 18 metrora jartzen dira, eta puxika bi eta uztaiz eta sagar bana izaten dituzte helburu.

Txapelketa eguerdian hasi zuten, eta hasieran publiko gutxi izan zen arku tiroketa ikusten. Goi-

zak aurrera egin zuen neurrian, baina, jende asko hurreratu zen Zaldibarrera. Horrez gain, txapelketa amaitu zenean, herritar asko animatu ziren arku tiroketa probatzera. Arrasateko SP-10 taldeko arkulariak pozik geratu ziren domekan egindako lanarekin, Hori esan digu Miguel Galvanek: "Distantzia horretan hobeto dabilzanek ezin izan zuten txapelketan esku hartu, eta ordezkoez jokatu zuten. Kontuan izaten badugu domekakoa txapelketako lehenengo jardunaldia baino ez dela, laugarren postua oso ondo dago".

Arrasatekoaren ostean, hurrengo jardunaldiak Zornotzan, Barakaldon, Oñatin eta Durangon jokatu dituzte, hain zuzen ere.

'SKATE' FESTA

'Skate' festa arrakastatsua izan zen joan den zapatuan Zaldibarren

Joan den zapatuan skate festa arrakastatsua izan zen Arraska taldearen eskutik Arrasaten. Skate parkea prestatu zuten Zaldibarko pilotalekuan, eta erakustaldi polita egin zuten. Jende asko izan zen skate festan, asko kanpotik etorritakoak. Jai goizean goiz hasi zen eta ilunkara arte jendea skate taulen gainean ibili zen, jo eta ke. Egun osoan musikarik ez zen falta izan, eta beste hainbat ekintza ere egin zituzten. Grafitiak, musika, sari banaketa... Egun biribila Arrasateko skate-arendako.

FOTOKIROLA



Txema Hernando, xake bizkorrean onena

San Juanetako Xake Txapelketa gaur jokatu behar zuten, baina Arrasate Xake Taldeko lagunek, azken momentuan, txapelketa joan den zapatuan jokatzea erabaki zuten. Txapelketa parekatua izan zen, eta irabazlea Txema Hernando mondragoetarra izan zen. Bigarren Aretxabaletako Aitor Alcaide izan zen eta Josu Tornay mondragoetarra izan zen hirugarren. Txapelketa jokatzeaz gain, Arrasate Hiria Xake Txapelketako sariak banatu zituzten zapatuan.

ARRASATE VS ATXONDO GIZON PROBAK 2003

Giro ezin hobea baina bero handiegia Arrazolan jokaturako Gizon Probetan

Aurten bizkaitarrek hobeto prestatu dituzte probak, eta horri esker 7-3 nagusitu ziren zapatuan

Koadrilen arteko apustu bat dagoeneko hitzordu garrantzitsu bilakatu da. Izan ere, zapatuan, bigarren urtez, Atxondoko eta Arrasateko hainbat koadrilak Gizon Probak jokatu zituzten Arrazolan, eta aurten emakumeek ere hartu dute parte probetan.

Joan den urtean mondragoetarrak nagusitu ziren, baina aurten Atxondokoek probak hobeto prestatu dituztela erakutsi dute. Era berean, iaz Arrazolakoek bakarrik hartu zuten parte, eta aurtengo probetarako bizkaitarrek mugak zabaldu dituzte: Arrazola beharrezko, hemendik aurrera Atxondo izango da Arrasateren kontrario. Eta muga zabaltze hori ondo baino hobeto etorri zaie bizkaitarrei, fitxaketa onak egin dituzte-eta. Arrasatearrak lasai asko joan ziren zapatuan Arrazolara, joan den urtean erraz irabazi zuten-eta, baina aurten kontuak bestelakoak izan dira eta gauzak ez dira berdinak izan.

Lehenengo proban, Gara-gartzatik Arrazolara korrika egin beharrekoan, Atxondo nagusitu zen, sasoi hobean egon baino gehiago, bizkaitarrek bide motzena aukeratu zutelako.

Hurrengo proba aitzur-jaurtiketa izan zen, eta proba hori

Arrasaterendako izan zen. Aurreratu ere egin ziren mondragoetarrak, sokatiran Arrasateko neska-mutilek erraz irabazi zuten-eta. Txorokil-batze lasterketan arrasatear bik neurtu zituzten indarrak: Urtzi Amiano mondragoetarra da baina Atxondoko taldearekin jokatu du, eta Harry ibili zen Arrasate ordezkatzeko. Urtzi azkarrago izan zen, eta Atxondok berdintzea lortu zuen (2-2). Gainerako ia proba guztietan Atxondo nagusitu zen.

Arrasatek txinga-eroate lasterketan irabazi zuen, Mikel Etxebesteren lanari esker. Gainerako probetan, trontzetan, aizkolari lanetan, sako lasterketan, ingudean eta pilotan (22-9) Atxondok gehiago zela erakutsi zuen. Datorren urterako ikasgaia ondo ikasita eraman beharko dute mondragoetarrak.

Probak alde batera utzita, talde bien artean egon zen giroa ezin hobea izan da aurten ere. Kopa Atxondok dauka orain, eta Arrasateren lana datorren urtean kopa hori errekuperatzea izango da.

Azpimarratzekoa da, era berean, Atxondokoek egindako lana: aurten ere jokoak ondo antolatuta egon dira, baita bazkaria ere. / X.U.



Gizon probak amaituta, koadrilek bat egin eta argazki familiarra atera zuten. Ordu batzuk geroago, goizaldean, beste proba bat ere izan zen: etxera nor beranduen erretiratu. Mondragoetarrak txapeldun!

ELKARRIZKETA

JABI MAYOR/MARGOLARIA

“Urteak behar izan ditut dena egiten ikasteko, baita margotzeko ere”

IKER BARANDIARAN

Jabi Mayor arrasatearrak pintzelak hartu ditu berriro. Iraganean margolan, mural eta bestelako lan mordoak egin zituen, baina orain dela bospasei urte koman egon zen. Errekuperazio lan handia egin du, eta erakusketa jarri du.

Iraganean margolan asko egin zenituen, ezta?

Bai, hala da. Txiki-txikitatik marraztea eta margotzea oso gustuko izan dut. Arte Ederretako ikasketak egin nituen, Bilbon. Erakusketa batzuk egin nituen Harresi aretoan, baita Bilboko galeria baten ere, eta Bilboko eta Arrasateko hainbat tabernatan marrazkiak egin nituen. Hala ere, gurago dut kalean margotu. Behin baino gehiagotan Danel Goikoleak, Xabier Atxak eta hirurok Arrasateko kaleetan mural erraldoiak egin genituen, drogamenpekotasunaren aurka, arrazakeriaren aurkako astean...

Orain dela bospasei urte pneumotorax gogor bat izan zenuen, eta hainbat arrazoi-rengatik koman egon zinen...

Bai, Pneumotoraxaren eta asmaren eraginez konortea galdu nuen. Horregatik eta medikuen hutsegite bategatik koma egoeran sartu nintzen. Urteak behar izan ditut berriro dena egiten ikasteko. Eta denbora luzean ezin izan dut ezer margotu.

Erratuta ez banabil, pneumotoraxa izan aurretik zenbait proiektutan buru-belarri zenbiltzan...

Bai, proiektu mordoak nituen. Horien artean, ospitale zaharra



IKER BARANDIARAN

“Gurago dut kalean margotu, margolanak egin beharrean muralak egin, hain zuzen ere”

“Erakusketarako egin ditudan margolanak kolore biziko akuarelak dira”

zegoen eraikinean, Seber Altuben, mural erraldoia egiteko baimena eman zidaten. Horretan nembilen, baina halabeharrez atzera bota behar izan nuen.

Eta orain bat-batean margolan berriekin erakusketa jarri duzu...

2002ko bukaeran, lagun batekin, Sofirekin, Larrinetxe jate-txean afaltzen nengoela, jate-xeko Vicariok eta Sofik erakusketa egitera animatu ninduten. Esan eta egin. Aurretik eginda nituen zirriborroak hartu eta hainbat akuarela margotu ditut. Egia esan, azkeneko erakusketa orain dela zortzi bat urte egin nuen.

Ondo moldatzen zara margotzeko?

Bai. Mahai baten gainean, blok handi baten margotzen dut. Tamaina txikiko margolanak egiten ditut. Lehen egiten nituen margolanekin alderatuz gero, txikiak dira. Erakusketa prestatzen lagundu didan Kepa Altube Kopik esan zidan zatika margotu eta gero zatiak itsats ditzakedala. Aukera ona da, baina erakusketan ez dut horrelakorik jarri.

Zer aurkituko dugu Udala-ko Larrinetxe jate-txean jarri duzun erakusketan?

Lehenik eta behin esan beharra dago margolan guztiak akuarelan egin ditudala. Kolore biziak erabili ditut, ni neu alaitu egiten nautelako. Gehienak paisaiak dira, baina badaude erretratuak eta zenbait emakumeren marrazkiak ere. Horietako asko udan egindako marrazkiak dira, baita aspaldi egindako zirriborroetan oinarritutako margolanak ere. Badituzte proiektuak, eta berriro margotzeari ekin diot.

KULTURAPILULAK



Uztaileko zinekluba Monterronen egingo dute

Aurreko urteotan moduan, aurtengo uztailean eguenetako zinekluba Monterronen egingo dute. Era berean, zineklubaren ordutegia ez da urtean zehar duen bera izango. Hain zuzen, filmak 22:30ean izango dira. Lau film iragarri dituzte: Nigel Cole zuzendariaren *El jardín de la alegría*; David Lynch-en *Mulholland drive*; Hou Hsiao Hsien-en *Millennium Mambo*; eta Jean Pierre Jeunet eta Marc Caro zuzendariaren *Delicatessen*.

Uztailaren 3an *El jardín de la alegría* filma emango dute. Nigel Cole zuzendari ingelesak egin zuen, 2000n, eta komedia da. Emakume protagonistak alargundu, eta dituen zorrak kitatzeko asmoz, bere lurretan kalamua landatuko du. Egoera barregarriak sorraraziko dute.

Uztailaren 10ean *Mulholland drive* filma emango dute. David Lynch zuzendari esanguratsu estatubatuarra egin zuen, 2001ean, eta tentsio biziko drama da. Hollywoodetako emakume batek oroimena gudu du auto istripu baten ondorioz. Antzezle australiar baten laguntzarekin oroimena berreskuratzeko ahalegina egingo du.

Uztailaren 17an *Millennium Mambo* filma emango dute. Hou Hsiao Hsien zuzendari taiwandarra egin zuen, 2001ean, eta drama da. Hou Hsiao zuzendariak oso ibilbide luzea du zineman. Vicky, protagonista, bi gizonekin dago maiteminduta. Horieta-ko batek, Hao-haok, Vicky zelatatzen du, eta Vicky ihes egiten ahaleginduko da.

Eta uztaileko azkeneko filma, *Delicatessen*, uztailearen 24an emango dute. Film hori 1991koa da eta Jean Pierre Jeunet eta Marc Caro zuzendariak egin zuten. Urte batzuk geroago, bi zuzendari horiek *La ciudad de los niños perdidos* egin zuten eta orain dela urte bi *Amelie* film arrakastatsua zuzendu zuten. *Delicatessen* ezinbesteko filma da, fantasia eta komedia oso ondo uztartzen dituena. Proposamen erakargarriak, hortaz.



Arrasatearrak finalista kantuan

Ekainaren 14an (zapatua) Euskal Herriko Haur Kantu Txapelketa jokatu zen Algotako Bihotz Alai plazan. Arrasateko talde bik lortu zuten finalerako txartela, eta beste 22 talderekin lehiatu ziren.

Jone Fernándezek eta Miren Jone Fernándezek osatutako bikoteak bigarren saria lortu zuten binakako sailkapenean. Horrez gainera, Xabier Vallina gaztetxo arrasatearrak ere finalean hartu zuen parte, baina ez zuen saririk eskuratu. Argazkian, hiru finalistak. /A.B.

E, TXO!

GUREGAIK/ ABIAN DA GAZTETXEA

**AFAGI ELKARTEAK
BOLUNTARIOAK BEHAR DITU**

Alzheimerren duten gaixoen senitartekoen elkarteak, AFAGIk, boluntario programa bat du indarrean Gipuzkoan 1999a ezkerro.

Gaixoen senitartekoei euren eguneroko lanean laguntzea da boluntario horien lan nagusia. Bada, AFAGIk ARRASATE PRESSi jakinarazi dionez, boluntario gehiago behar dituzte programa horretarako. Horrenbestez, interesa dutenek honako telefono zenbakira dei dezakete izena emateko eta informazio zabalagoa jasotzeko: 943 29 71 18.

**EUSKAL LITERATURAREN
GAINEKO PROIEKTUA**

Amorebieta-Etxanoko Udalak euskal literatura-ren gainera Santiago Onandia ikerketa-bekarako delaldia egin du. Urte birako emango dute beka hori, eta banaka nahiz taldeka egindako proiektuak aurkeztu ahal izango dira.

Dagoeneko zabalik dago proiektu horiek aurkezteko epea, uztaillaren 28ra arte. Beka horren gainera informazio zabalagoa gura dutenek www.amorebieta.net webgunera jo dezakete edo 946 30 00 02 telefono zenbakira deitu.

**AUZOLANDEGIAK AITA MENNI
OSPITALEAN**

Deustuko Unibertsitateak auzolandegiak antolatu ditu 2003ko uztaillerako. Arrasateko Psikiatria Ospitalean izango dira auzolandegiok, uztaillaren 14tik uztaillaren 26ra arte.

Auzolandegi horietan izena emateko epea uztaillaren 9ra arte egongo da zabalik.

Informazio zabalagoa gura duenak honako telefono zenbakira dei dezake: 983 22 28 75; posta elektronikoa, berriz, honako hau da: pju@hsjd.es.

**ITZULPEN PRAKTIKAK
EGITEKO BEKAK**

Beka bi emango ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta itzulpen praktikak egiteko aukera eskainiko du. Itzulpen gaitasuna eta Interpretazioko ikasketak egiten dihardutenek izango dute beka horiek lortzeko aukera. Informazio zabalagoa gura dutenek telefono zenbaki honetara dei dezakete: 943 11 35 13.

Gaztetxea zabaldu, eta gazte batzarra hasi da hura ezagutzera ematen

IKER BARANDIARAN

Azterketak direla-eta, Arrasateko gazte batzarrek ez du San Juanetarako egitarau berezirik antolatu. Hala ere, gogotsu dabil gaztetxea ezagutzera emateko ahaleginetan. Ahalegindu, eta lortu.

Irakurtzen ari zareten artikulua argitaratu orduko, dagoeneko hiru aste egin ditu zabalik Arrasateko gaztetxeak. Lehenengo bi aste bukaeretan jaialdi bereziak egin zituzten: inaugurazio ekitaldia eta 70eko hamarkadako jaia, hain zuzen ere. Eta biek ere arrakasta handia izan zuten. San Juanetan ekitaldi gehiago antolatzeko asmoa zuten arren, azkenean ez da posible izan. Izan ere, gazte batzarreko partaide askok azterketak dituzte garai honetan, eta tamalez ezin izan dute ekintzak prestatzeko astirik hartu. Hala ere, San Juan jaietan gaztetxeako tabernako txandak boluntarioekin bete zituzten, zailtasun barik.

Horrez gainera, gazte batzarren eta gaztetxearen gainera kartel eta pegatina txukunak atera dituzte, eta horiek herrian zabaltzeko ahaleginetan dabilta, herritarrek gaztetxea zabalik eta bizirik dagoela jakin dezaten.

'11 + 1 URTE ZIRIKATZEN'


Gazte batzarrek atera dituen kartel eta pegatinekin *Ametsak egi bihurtuz*. *Gaztetxe berria zutik eta bizirik!* leloa dute. Horrez gain, ospitale zaharreko gaztetxeak bete zituen 11 urteei gazte batzarrek lanean bete duen urtea batu diote. Horren harira, *11 + 1 urte zirikatzeko* leloa azpimarratu dute.

*Gazte batzarren
asmoak eta
helburuak zehazten
dituzten kartelak
atera dituzte*

*Gaztetxearen
gainera erreportaje
txukuna egin dute
'gazesarea.net'
webgunean*

Karteletan 1991tik 2003ra arteko ibilbidea aldarrikatu dute eta gaztetxean egin diren eta egin gura dituzten ekimenak zerrendatu dituzte: kontzertuak, antzerkiak, antolakuntza, berdintasuna, mimoa, irteerak, autogestioa, algara, txalaparta, dantza, irudimena, lankidetzak, ekologia, adierazpen askatasuna, bertsoak, eta beste asko.

Bide batez, ospitale zaharreko gaztetxearen eta egungoaren ibilbideak apurketarik egin barik lotu gura izan dituzte. Gazte batzarreko partaideek honako hau azpimarratu dute: "Iraganean herrian gaztetxeen alde lan egin den guztiarengatik izan ez balitz, orain ez genuke horrelako gaztetxerik izango, Udalak ez liguke horrelakorik emango. Orain daukaguna urte askoan egindakoa-



ARRASATE PRESS

Gazte batzarrek pegatina eta kartel mordoa atera ditu.

ren emaitza da".

ERTZAINZAK ISUNA JARRI GURA DIE

Orain dela egun gutxi, gazte batzarreko hiru partaide kalean gaztetxearen gainera kartelak jartzeko zebiltzala, bi ertzainek identifikatzeko eskatu zieten. Ertzainek gazteei alde egiten utzi zieten, baina fatxada bat zikintzeagatik isuna helduko zaiela iragarri zieten. Bada, gazte batzarra haserre dago gertatutakoarekin, eta epe laburrean zer gertatuko den zain dago.

GAZTETXEA 'GAZTESAREA.NET'-EN

Orain dela hilabete batzuk *Gazesarea* kultura elkarteak *gazesarea.net* webgunera jarri zuen abian. Webgune horretan gaztearen gainera informazio mordoa ageri da. Hilean behin edukiak eguneratu egiten dituzte, eta orain dela gutxi Arrasateko gaztetxearen gainera erreportajetxoak prestatu zuten, argazki eta guzti. Horrez gainera, AGAKOko partaide batzuk elkarrizketatu egin zituzten, eta elkarrizketak entzun ere egin daitezke.



Eguenean hasiko dira Udalekuak

Uztaillaren 3an, eguenean, Txatxilipurdik antolatzen dituen 2003ko Udalekuak hasiko dira. Aurreko urteotan moduan, aurten ere parte-hartze handia egongo da: Arrasateko 300 bat ume eta gaztetxok parte hartuko dute.

Txatxilipurdi elkarteak Udalekuetako txanda bakarria antolatu du: uztaillaren 3an hasi eta uztaillaren 24an bukatuko da.

Eguaztenean, berriz, herriko ume eta gaztetxoek Eguzki Laruri udalekuetarako eguraldi ona egitea eskatu zioten. Udalekuak hasteko irrikan daude umeak. /I.B.

BEHEKOTABERNATIK

Jesus Untzueta

ZIORLA TABERNAKUE

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Oin dala bost urte zabaldu euen Jesusek Ziorla tabernie, baiñe lehenagotik be ibillittakue da tabernari, 1981a ezker, hain justu be. Bergaran jaixo zan, baiñe hogeita bost urte daroie Musakolan bizi izeten. Lehen AC/DC entzuten euen gustora, baiñe oin, 46 urtekin, beste musika klase bat gustetan jako.

Txikittan ze gure zeuen izen?

Txikittan ez neuen etorkizunien pentsetan. Eskolara ez juetie bakarrik eukitten neuen buruen.

Ze eskatuko zeuskio alkate barrixari?

Ez neuskio ezer be eskatuko. Eskatuta be kasu gutxi egitten daue politikuek.

Drogak legalizauko zeuke?

Batzuk bai.

Eta prostituziñue?

Derrigorrezkue dala pentsetan dot.

Pelikula bat? Liburu bat? Musika talde bat?

Pretty Woman / Danetik irakurten dot / Euskal musikie; Gozategi, adibidez.

Nora juengo zitzake gustora?

Hirugarren aldiz bada be, Kubara.

Uharte batera ze hiru gauza eruengo zeuke?

Andrie, liburuek eta telebisiñue.

Etxeko lan gorrotagarrixena?

Plantxie egittie, esate baterako.

Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Lehen bai, baiñe oin ez dauket edaderik. Leku danak die onak juergarako, norberak daukon goguen araberakue da.


Puntuau Mondragueko girue.

Zortzikue. Baiñe danak gaztiekie die, eta gu jokoz kanpo geraketan gare.

Ze dauko ona udaberrixek?

Eguraldixe. Gaiñera, emuten dau danok umore hobiekin ibiltten garela.

Zure lanerako ezinbestekue



X.U.

"Pintxuek tapau arren ez dot uste ezer konponketan danik; tapau barik hobeto dauzela uste dot"

dan gauza bat?

Jenero ona eukittie, jentie tabernara etorri danin.

Tranpan ibilttektan norbaittekin, zeñekin?

Iñokin be ez.

Jefiei ze esango zeuskio gustora?

Ni neu naz jefie. Lehen, fabriketan lan egitten neuenien, ondo konponketan nitzen jefiekin.

Zergaittik egingo zeuke lanuztie gustora?

Jubilaziño hobie eukittiagaittik.

Denpora librien ze egitten dozu?

Kirol apur bat, eta deskantsau. Janari eta edari gustokue-

"Herrixen giro ona dau, baiñe giro gaztie; nagusixek lekuz kanpo geraketan gare juergie egitteko"

nak?

Danetik jaten dot; edateko, ardaue.

Ze albiste irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Ezker abertzalie legalizaute dauela barriro be.

Ze dozu gurago, kafiek ala kopak atara?

Zera, momentue ona bada, bixek egitten dittut gustora.

Pintxuek, tapaute ala tapau barik?

Guk ez daukogu pintxorik, baiñe tapau barik jan izen dogu beti, eta ez jaku ezer pasau.

Nun egoten da hobeto, barra aurrien ala atzien?

Aurrien, lan egin barik.

NIREBIDAIAHURA / Arnaitz Eraso

Italiara / 2002ko otsailetik Aste Santura arte

Joan den astean Milanen utzi genuen Arnaitz, lagun etxean. Aurreko egunetan Sienan eta Florentzian egon berri ziren, eta Milanen atsedean hartu eta gero, berriro ere bidaiatzeari ekin zioten. Venezia aldera jo zuten, eta Venezia asko gustatu zitzaion Arnaitzi. Venezian egon direnek diotenez, askotan usain txarra egoten da hango kaleetan. Arnaitzek, baina, ezin du horrelakorik esan: "Ez zitzaidan hiri zikina iruditu. Giro polita zegoen Venezian, eta ikusteko moduko lekua da. Hori bai, Mediterraneoari begira dagoen hiri bat den neurrian, ez nuen uste horrenbeste hotzik egingo zuenik, horrek asko harritu ninduen".

Venezia atzean utzi eta Veronarako bidea hartu zuten: "Romeoren eta Julietaren amodiozko istorioa Veronan dago oinarrituta, eta itxuraz, Julietaren etxea izan zena turistek topaleku bilakatu da". Veronan egun batzuk egin eta gero, Arnaitz eta lagunak Milanera bueltatu ziren berriro. Dagoeneko Gabonak ziren, eta Arnaitzek Arrasaterako bidea hartu zuen. Italian, baina, gauza asko zituen ikusteko, eta argi zuen aukeraren bat izanez gero berriro bueltatuko zela Italiara.

Bada, ez zuen luze itxaron. Arrasatera Gabonetan itzuli zen, eta otsailean berriro zen Italiarako bidean. Orduan, baina, Arnaitzek gauza asko zituen eramateko: "Italiako lagunek euren snow taulak eramateko eskatu zituzten. Alpeak oso gertu daude-eta. Gauza asko eramane nituen hementik, horretarako aukera nuen-eta". Bigarren bidaiaren beste hilabete eta erdi inguru egin zuen Italian. Arrasateetik gauze irten, eta eguerdian iritsi zen Milanera. Lagunekin egon, lo egin, eta gauean hiriko zentro sozial batera joan ziren, hemen gaztetxe moduan ezagutzen duguna: "Hutsik zegoen industrialdea zen hura, eta gune asko eta asko zituen. Gune bakoitzean kontzertuak zeuden, askotariko musikaz gozatzeko aukera, gauzak saltzeko postuak, janaria, eta abar. Izan ere, denetarik zegoen han".



"Gabonetan itzuli nintzen, eta otsailean berriro nengoan han"

XABIER URZELAI



Milanen tranbia bat errentan hartu eta han eginiko jaiaren argazkia.

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

AGR
García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Aretz Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

Gorka
Ileapaindegia
peluqueria

Ordutegia:
Asteleheneetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78

ZAHARREN ETXETIK

Iturbide egoitzan bizi diren egoiliarrek urteroko irteera egin zuten

IKER BARANDIARAN

Ekainaren erdialdean, urtero moduan, Iturbide egoitzako egoiliarrek osteratxo egin zuten Arrasaten. Meza entzun, Zaldibarren pilota partidua ikusi, eta horren ostean, Uarkape pilotalekuan bazkaria egin zuten. Egun polita pasatu zuten, zalantza barik.


Ekainaren 11n, Iturbide egoitzako 55 bat lagunek irteera egin zuten. Urtero egiten dute halakoren bat. Lehen, Arrasatetik kanpo joaten ziren, baina Iturbide egoitzan bizi direnek duten adina kontuan hartuta, irteera Arrasaten egitea adostu zuten.

MEZA ENTZUN ETA PARTIDUA IKUSI

Iturbideko arduradunek iazko eredu bera segitu dute: 11:00etan, meza entzun zuten San Juan Bautista parrokiaren egunero egoitzan entzuten dute. Jose Angel Agirrek esan zuen meza, eta parrokiako koroak, besteak beste, San Juan kantua abestu zuen. Mezak hiru ordu laurden iraun zuten, eta egoiliarrek oso gustura egon ziren.

Elizatik irten eta gero, egoiliarrek Arrasaten zehar paseoa egin zuten. Iturbideko langileek eta boluntarioek lagundu zituzten, egoiliar asko gurgil-aulkietan ibiltzen dira-eta.

Gero, Zaldibar pilotalekura joan ziren, eta han herriko lau pilotarik egoiliarren omenezko pilota partidua jokatu zuten. Jose Angel Agirre *Curasao*-k eta Pedro Fernández *El Indomable*-k osatutako bikotea Agustin Ibarluzea *Txispas*-ek eta Francisco Mateo *Txinguri*-k osatutako bikotearen aurka lehiatu zen. Partidua 18 tantora izan zen, eta *Txispas* eta *Txinguri* izan ziren garaile. Iturbideko egoiliarrek eta han batutako gainerako lagunek jokalarari ausartak animatu eta txalotu egin zituzten. Izan ere, egun hartan bero handia egin zuen, eta jokalariek ez bezala, ikusleak gerizpean zeuden. 13:00ak aldera, behin partidua bukatu zenean,



Iturbide egoitzako lagunek oso gustura ikusi zuten euren omenezko pilota partidua.

egoiliarrek eta euren laguntzaileek Mondragon Hoteleko terrazara joan ziren, janaurrekoa hartzera.

Atsedean hartu ondoren, Iturbideko taldetxoak Uarkapera joan

zen, bazkaltzera. 55 lagunak Uarkapera igotzeko hainbat buelta eman behar izan zituzten, baina uste baino errazagoa izan zen. Menu goxoa izan zuten: urdaiazpikoa, kroketak, legatza saltsan,

solomilloa, postreak eta kafea. Bazkarian honako hauek egon ziren, besteak beste: Amaia Larrañaga zinegotzia, Iñigo Garitano teknikaria, Iturbideko 55 egoiliar eta pilotariak.

Egun desberdina

Azken urteotan ohitura bilakatu da urtean egun baten edo bitan Iturbide egoitzatik kanpo irteera egitea. Iraganean Arrasatetik kanpo jotzen zuten arren, azken urteotan irteera hori Arrasaten egin dute. Egoiliarrek urrun joaten ez diren arren, oso egun polita egiten dute egoitzatik kanpo.

Bestalde, uztailean egoitzako langile batzuek beste irteera bat egiteko asmoa dute, oraindik zehaztu ez duten arren.



LABUR

Uribarririk berbaldia eta txangoa antolatu ditu

Uribarri erretiratuen elkar-teak berbaldia antolatu du uztailearen 2an (eguztean): *Burmuiñ osasuntsuak gorputz osasuntsuetan*. 17:00etan izango da. Uztailearen 10ean, berriz, Santanderrera joango dira.

Toki Argi elkarteak Costa Bravara joango dira

Toki Argi elkarteak erretiratuak Costa Bravan egongo dira irailaren 27tik urriaren 3ra. Hainbat herri eta hiri bisitatuko dituzte: Figueres, Ampuria Brava, Girona, Bartzelona, Tossa de Mar...

Bakoitzak 220 euro ordaindu beharko ditu, eta dena egongo da prezio barruan. Izena eman lehenbailehen.

Abaroa elkarteak Gernika-Lumora irteera egingo du

Uztailearen 14an Abaroa elkarteak Gernika-Lumora joango dira. Gernikan hamarretakoa egingo dute, eta batzar etxea eta azoka bisitatuko dituzte. Horren ondoren, Busturian bazkalduko dute eta bueltan Bermeon geldituko dira. Izenematea uztailearen 7an izango da, eta 15 euro ordaindu beharko dute.

Abaroa elkarteak Lloret de Marrera joan gura dute

Irailaren 20tik 27ra Abaroa elkarteak erretiratuak Lloret de Marrera joan gura dute. Bakoitzak 175 euro ordaindu beharko ditu, gastu guztiak barne. Izenematea ekainaren 30ean zabalduko dute. Horren harira, Abaroako bazkide ez direnek ere izango dute izena emateko aukera, lekua baldin badago.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

EGUZKIGRAF

inprimategia

Industrialeda F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETA

UGARAN

jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



ARRASATE
Jone Ezkurra
Ekainaren 18an, 15 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Iñigo Uribarren
Ekainaren 18an, 10 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Jennifer Arévalo
Ekainaren 25ean, 15 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Itsaso Arana
Ekainaren 26an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Naiara González
Ekainaren 23an, 26 urte.
Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Maitane Gómez de Segura
Ekainaren 21ean, 26 urte.
Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Oier Etxebeste
Ekainaren 19an, 1 urte.
Zorionak, mutikote! Aupa, Real!



ARRASATE
Iker Alonso
Ekainaren 15ean, 5 urte.
Zorionak! Aitatxo, amatxo eta Goienakoak.



ARRASATE
Unai Alonso
Ekainaren 15ean, 5 urte.
Zorionak! Aitatxo, amatxo eta Goienakoak.



LEGAZPI
Maite Romaretazabala
Ekainaren 4an, 12 urte.
Zorionak! Etxekoen eta amonaren partetik.



ARRASATE
Susana Tarragona
Ekainaren 18an, urtebetetzea. Zorionak! Txema, Unai, Amets eta auzokoak.



ARRASATE
Saioa Urrutia
Ekainaren 27an, 26 urte.
Zorionak, ederroi! Peña de la Greña.



ARRASATE
Naiara Perea
Ekainaren 28an, 1 urte.
Zorionak! Josuren eta Merteren partetik.



ARRASATE
Garazi Etxabe
Uztailaren 4an, 3 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Antonio Jiménez Txapu
Ekainaren 18an, 37 urte.
Zorionak! Olatz eta Beñat txikia.



ARRASATE
Jon Kabia
Ekainaren 22an, 10 urte.
Zorionak! Marta eta familia eta auzoko lagunak.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzeari komeni da.

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Nondik ekartzen dute gehienetan Arrasateko Sanjuanetako makala?
Arrastoa: Bergarara bidean dagoen leku batetik.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Kraft maionesa
450 ml

0,89€ 148 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ASIER BERGARETXE erendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Asier!
Galderen erantzun zuzena:
Kanpanzarerako bidea.

ARRASATEKOHISTORIA

Gerra Arrasaten:
Arrasate erori zenekoa

'ARRASATE 1936, BELAUNALDI ETENA'

Oñati eta Gatzaga irailaren 21ean erori ondoren, Arrasateren defentsarako azkeneko gudariak Bedoñako auzoan izan ziren; beste batzuen artean, gudaldi haietan Eusko Abertzale Ekintzako (ANV-EAE) milizianoek hartu zuten parte; gudaldi haiek hilaren 25aren eta 26aren goizean gertatu ziren; Bedoñan Loramendiren omenezko zutarrria profanatu zuten; gero, handik kendu eta Aretxabaletako udaletxeko espetxean egon zen, berriro ipini zuten arte. Egun hartan, 16:00etan, Portaloitik Errepublikaren azken blindatuak eta plazatik anbulantzia batek Nikolas Uriarte, Zelestino Uriarte eta Tatxo Amilibia zeramatzala, irteten zebiltzan une berean sartu ziren beste aldetik altxatuak Arrasatera.

Maalako errabaletik eta trenaren geltokitik iritsi ziren; Portaloiko aurrean elkartu ziren guztiak, eta bandera gorri-horia jarri zuten han.

Ezkutalekuetatik irtenik 20ren bat karlistak kanpaiak jotzera behartu nahi izan


Arrasateren defentsarako azkeneko gudariak Bedoñako auzoan izan ziren

Maalako errabaletik eta trenaren geltokitik iritsi ziren; Portaloiko aurrean elkartu ziren

zuten Arin erretorea; hark, ordea, ez zuen gura izan; eta karlistek eurek jo zituzten.

19:00etan su handi bi egin zituzten eta Ikurrinak, bandera gorriak eta errepublikarrak, Galán eta Hernándezen, Pablo Iglesiasen eta Sabino Aranaren erretratuak eta liburu eta dokumentu asko erre zituzten.

Biztanleen %60k baino



'ARRASATE 1936 BELAUNALDI ETENA' LIBURUA

Altamendutik egun gutxira, argazkiko pareta horren ondoan eman zieten ihesi legea zenbaiti.

gehiagok Bizkaira ihes egin zuten; Errepublikaren aldekoak ziren erakundeetan inolako erantzukizunik eduki zezakeen herritarrik ez zen Arrasaten geratu.

Geratu zirenak inolako errepresio arriskurik ez zutelako geratu ziren.

Arrasate eroririk eta Elgetan defentsa lerroa finkaturik, fronte tinko bat eratu

zen; Elgetatik Intxorta, Kanpanzarko baserriak, Udalako auzogaina, Karraskain, Aramaio, Kurtzeta, Otxandiotik Ubideraino (begiralekua zegoen haietan) iritsi zena.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko ekainaren 27a / 70. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

II. Uda Ikastaroetan Euskal Herria aztertuko dute

UBANE MADERA

Datorren astean, Udako Ikastaroak izango dira. Diputazioak eta Udalak antolatuta, eta hemengo unibertsitatearen laguntzarekin, Euskal Herria eta inguruak aztertuko dituzte.

Martitzenean hasi eta barikura arte, aurreneko mendetik hamargarrenera arteko Euskal Herria eta inguruko lurraldeak aztertuko dituzte kultura etxean. Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako zenbait unibertsitateko adituak etorriko dira horretarako. Hala, bigarren urtez, Udako Ikastaroak egingo dituzte Aramaion; Diputazioaren eta Aramaio Udalaren eskutik eta Euskal Herriko Unibertsitateak lagunduta. Eskolak 16:00etan hasiko dira eta 20:00etan bukatu.

MARTITZENA ETA EGUAZTENA

Martitzenean euskal literatura izango da berbagai. Kantabriako Unibertsitateko Jose Luis Ramírez Sádbak eta Bartzelonako Unibertsitateko Javier Velazak eman go dituzte eskolok.

Eguaztenean, berriz, hiru eskola izango dira; hirurak EHUko maisuen eskuetatik. Antzina-



laz Europako hizkuntzak aztertu zituzten ikastaroetan.

te berandua Mendebaleko Hego Euskal Herrian, kristautasunaren sorrera eta Euskal Herria IV.-VII. mendeetan aztertuko dituzte Agustin Azkarate, Juan Jose Larrea eta Roldan Jimeno irakasleek.

EGUENA ETA BARIKUA

Eguena izango da egun internazionalena. Izan ere, Euskal Herriko, Madrilgo eta Bordeleko irakasleak izango dira Aramaion. EHUko Julio Núñezek Mendebaldeko Pirinioaldea aztertuko

du; Bordeleko Philippe Aragua sek Antzinate berandutik Erdi Aro feudalerako arteko Akitaniako hirien gainean egingo du berba; eta Madrilgo Complutenseko Ramon Santiagok erromantzeen lehen urratsak aztertuko ditu.

Bukatzeke, barikuan, Joakin Gorrotxategik I.-X. mendeetan izandako hizkuntzen eraginaren gainean egingo du berba; Joseba Lakarrak Aitzineuskara izango du berbagai; eta Henrike Knörrrek Joan Coromines hizkuntzalaria izango du irakasgai.



Jende gutxi, baina giro aparta

Etorri eta joan. Hala egin dute Azkoagan Sanjuane. Baina bidean oroitzapen polita utzi dute. Azkoagarrak esandakoaren arabera, jende gutxi ibili da, baina oso giro onean. Zapatuko afora, adibidez, primerakoa izan zen; batez ere, gauean ederto egoten zelako kanpoko freskotasunean. Giro horretan, gustura asko jan zituzten parrillan prestatutakoak. Astelehen iluntzean, berriz, sardinak eta txorizoak jan zituzten suaren ordua itxaron artean; martitzenean, goizeko ekitaldien ostean, karta jokoein amaitu zuten eguna, eta eguaztenean meza izan zuten.

HERRITARREN HITZA / Arantza Ibabe • Langilea

Aurrerabidea

Banindoan duela hiruzpau aste, aspalditik joan barik, dena esan beharra dago, horra, behe aldera; bai horrelaxe deitzeko ohitura dago aramaioar batzuen artean Mondragoetik hasi eta kostaldera bitarteko herriei.

Bueno esaten hasi eta galdu egin naiz *bidean!* Hau da hau marka! Bergararantz heltzeaz nengoela, hara non ikusten dudana sekulako munstroa nire goiko aldean! Eibar-Gasteiz *autobidea* zela esan zidaten.

Laster, herriak *biñe* azpitan geratuko zaizkigu; eguzkia, ilargia, zerua eta gainerako edertasun guztiak ikusi ezin ditugula.

Bai, autoz aurreratzeko *bide* egokia izango da, duda izpirik ez. *Aurrerabidea* ere eiz da, horretaz ordea, zalantzan nago. Izan ere, zer da *aurrerabidea*?

Parisera bi ordutan heltzea Abiadura Handiko Trena hartuta?

Abiadurak balio handia du gizarte honetan, bizitzako atal guztietan gainera, dena lehenbailehen egin beharra dago. Jakina, hainbesterainoko presaz ez diogu *bizibideko* paisaia guztiei erreparatzen. Agudoa-



"Gure etxea kakazten gabiltza gizakiok"

go joatearren ordaindu beharko dugun prezioa? Batek daki!

Txakurrek, lotuta egon ezean behintzat, ez eiz dute sekula lo egiten duten lekuan euren nezesidaderik egiten. Euren etxea ondo zaintzen omen dute. Bada, guk izaki bizidunetatik inortxok egiten ez duena gabiltza burutzen: gure etxea kakazten! *Aurrerabidearen* izenean nonbait.

Nork, norentzat eta zertarako proposatu du *aurrerabidea*? Zer ote dago galdera guzti

hauen atzetik...

Ene uste apalean *aurrerabidea* hau *bidegabekeria* besterik ez da.

Seriotasuna alde batera utzita espazio hau aprobetxatu gura dut bi elkarte-edo zoriontzeko. Zorionak, Realari eta Realzaleoi. Bigarren geratu arren zaletuok urte osoko bidean disfrutatu duzelakoan nago.

Eta zelan ez, zelan ez, *Berria* egunkari berrian lanean diharduzuen guztioi. Zuen ahalegina eskertzekoa da.

Eta, hainbeste *bide* gora *bide* behera, bada, *aurrerabidearen* izenean, hurrengo geltokira arte lagunok.

LABUR

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga

Aramaio Udalak jakinarazi digunez, Hiri eta Landaluren Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren ordainagiriak uztailearen 1etik 31ra arteko lanegunetan (biak barne) ordaindu behar dira, borondatez. Ordainketok Nardeaga kaleko Vital Kutxaren bulegoan egin daitezke. Helbideratuta dauden ordainagiriak, berriz, uztailearen 10ean kobratuko dituzte.

Behin aipatutako borondatezko epea pasatu eta gero, ordaindu bariko kuotak %20ko gaitzarguz kobratuko dituzte.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuliako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

AUTOBUS ZERBITZUA

San Martinak direla-eta, datorren barikuan, hilaren 4an, 18:00etatik aurrera eta astelehenean, hilaren 7an, egun osoan, autobusa saihesbidean geratuko da (Iturroste gainean).

BRISKA ETA MUS TXAPELKETA

Uztailaren 5ean, zapatuan, 16:30ean jokatu den briska eta mus txapelketetan parte hartzeko izena uztailaren 3a baino lehen eman beharra dago. Interesa duenak udaletxean edo Alaiak elkartearen eman behar du izena.

HERRI AFARIA

Jaietan egingo duten herri afarian parte hartzeko txartelak tabernetan daude salgai.

MINBIZIA DUTENEN BAZKARIA

Datorren uztailaren 5ean, zapatuan, minbizia duten Gipuzkoako eta Arabako umeen elkarteko kideek festa egingo dute Untzillan: 10:30ean luntxa izango duza; gero, hildakoen aldeko meza (Aretxabaletako abesbatzak kantatuko du); eta bukatzeko, Untzilla elkartearen bazkaria egingo dute.

Jarraikortasunaren alde egingo du Bañerak

UBANE MADERA

Aurtengo denboraldia bukatu dute Bañerako talde guztiek. Denetariko emaitzak lortu dituzte. Etorkizunari begira, jarraikortasunaren alde egingo dutela adierazi digu Bañera taldeko presidentek. Baita jokalarien gurasoen laguntza lortu gura dutela ere, entrenatzaile edo ordezkari izateko.

Joan den zapatuan jokatu zuen Bañerako gazte mailako taldeak denboraldiko azkeneko partidua, eta 3-2 irabazi zion Aurrera taldeak. Hala, sailkapenaren erdi inguruan geratu dira Liga Txapelketan. Eta Kopa Txapelketan, berriz, apur bat beherago. Horren hari-eta, Bañerako presidente Josu Bideburuk esandakoaren arabera, leku horren arazoietako bat da, besteak beste, Gasteizko taldeen kontra jokatu dutenean, epaileek gasteiztarren alde egin izan dutela, Juan Jose Arias Robledo entrenatzailearen haserretako. Hain zuzen, datorren denboraldiari begira, antzerakorik gertatuz gero, kezu formala egingo dutela adierazi digute. Bestalde, taldeari begi-


ra, hiru jokalarik utzi egingo dute, adinez nagusiegiak direlako, eta haien ordezkari kadeteetako mutilen taldeko hiru lagun sartuko dira.

NESKA ETA MUTIL KADETEAK

Hain zuzen, kadete mailako mutilen dagokienez, hirugarren lekuan geratu dira. Bañerako hiru taldeen artean progresio handiena izan duen taldea da; progresio ikusgarria, Bañerako presidentearen iritziz. Gainera, taldeko entrenatzaile Alberto Untzaluk esan digunez, batez beste partiduko 10 gol sartu dituzte kadeteek. Datorren denboraldirako talde berak segituko du, Alberto Untzalu eta Txumai Palomeroren gidaritzapean.

Eta, neskei dagokienez, sailkapenaren behealdean geratu dira, baina iazkoarekin konparatuz gero, partidu gehiago irabazi eta berdindu dituzte. Hain zuzen, atezain egokia topatu izanak (Lorea Oianguren) asko lagundu die horretan. Datorren denboraldian, gainera, beste hiru neska sartuko dira taldean, eta Jorge Nūñezen gidaritzapean segituko dute.

Hortaz, etorkizuna badu Bañera taldeak, baina laguntza behar dutela ere esan digu presidentek.



Bukatu da Pilota Txapelketa

Joan den barikuan (hilak 20) jokatu zituzten Bareak antolatutako Pilota Txapelketako finalak. Hala, txikien mailan Raul-Ekain 22 / Senar-Mikel 16 izan zen emaitza eta nagusiagoen mailan, Igor-Iker 22 / Bingen-Iñaki 17. Horren hari-eta, Enrike Axpe entrenatzailearen esanetan, Bingenek eta Iñakik egundoko partidua egin zuten, baina Igorrek neurria hartu eta 22raino joan ziren Igor eta Iker. Partiduen ostean, trofeoak eman zizkieten irabazleei eta Euskadiko Kutzak emandako opariak txapelketan parte hartu duten guztiei. Oro har, Barea taldekoak oso pozik daude txapelketaren emaitzarekin, eta jende dezente ibili dela esan digute, batez ere finalean. Aurrera begira, berriz, San Kristobal egunean-edo txapelketaren bat egitekotan dabilta. /ARGAZKIA: LUIS MARI

LABUR

Aramaioko osasun etxearekin lotutako pare bat ohar

Aramaioko osasun etxeko medikuarekin edo erizainarekin zuzenean berba egiteko telefono zenbakia aldatu egin dute. Hemendik aurrera honako hau erabili beharko da: 945 44 59 25. Gainerakoek berdin segitzen dute. Txanda eskatzeko: 945 44 53 40; faxa: 945 44 54 00; eta larrialdietarako: 943 46 11 11. Bestalde, jaiak direla-eta, uztailaren 7an itxita egongo da ambulatorioa. Egun horretan mediku edo erizain zerbitzuaren beharra izanez gero, 17:00ak arte Arrasateko ambulatiora joan beharko da; eta hortik aurrera, larrialdietara.

Euskara ikasteko eta UEUko ikastaroetan parte hartzeko dirulaguntzak

Euskara ikasi edo landu gura duten herritarrek dirulaguntza jasoko dute Udalaren eskutik. Euskara ikasteko matrikularen %80 ordainduko diete, baina %80ko asistentzia justifikatu beharko da. Uztailaren bukaera baino lehen eskatu beharko da laguntza. Bestalde, Udako Euskal Unibertsitatean parte hartu gura duenak matrikularen eta egoitzaren kostuaren %80ko laguntza jasoko du. Kasu horretan, ordainagiria, programa eta parte-hartze ziurtagiria aurkeztu beharko dira. Laguntzok irailaren 15a baino lehen eskatu behar dira.

Uztailaren 2an, eguaztenean, eratuko dituzte Aramaioko Udaleko batzordeak

Osoko bilkura egingo du udalbatzarrak, betiko moduan, 18:00etan hasita. Besteak beste, jakinaraziko dute zeintzuk izango diren Udaleko batzordeetako buruak (hirigintza, zerbitzuak, kultura, euskara/hezkuntza, ogasuna eta mendiak); baita gainerako lanak egiteko arduradunak zeintzuk izango diren ere. Oro har, Udaleko funtzionamenduaren berri emango dute.



Arragan, San Pedro eta San Pablo

Azkoaga auzoko jaiak Aramaioko gainerako auzoetako jaien txupinazoa direla esan dezakegu. Izan ere, haien ostean, bihar, zapatua, Arragako San Pedro eta San Pablo jaiak izango dira. Iker Olaziregi auzo-alkateak kontatutakoaren arabera, eguerdiko hamabietan auzoko hildakoen aldeko meza izango dute; gero, Lagun Artean dantza taldearen saioa egongo da; eta, bukatzeko, luntxa egingo dute auzotarrek Arragara doazenendako: txorizoa, gazta, eta abar dastatzeko aukera egongo da, eta "iturritik ura gura adina", auzo alkatearen esanetan. Gaineratu digu Arragako jaiak apalak direla, ez dutelako dirulaguntza handirik jasotzen, beste auzoetan baino jende gutxiago dagoelako.

ERRETRATUZAHARRA

Abadeen urrezko ezteiak

Akaso askori ezaguna egingo zaizue oraingo asteko argazkia. Izan ere, orain dela urte batzuk publikatu genuen.

Dena dela, egokia iruditu zaigu oraingo asteen berriro erakustea. Kontua da argazkian agertzen diren abade horiek abadetu zireneko 50 urte beteko direla datorren ekainaren 29an; urrezko ezteiak, hortaz.

Honako hauek dira gure abade protagonistak: ezkerretik hasita, aurrean, betaurrekoduna Jose Mari Sarrionaindia da eta haren ondokoa Juan Mari Lekuona; eta atzean, Tomas Iturbe, Bitoriano Aranburu eta Juan Bautista San Miguel daude.

Abadeen aurretik doazen meza-mutilak, berriz, honako hauek dira, ezkerretik hasita: Murgia, Jose Luis Torres eta Arana. Eta aurrekoak Joakin Etxebarria eta Loiti dira.

Gure berriemaileak kontatu digunez, Font de Andreu gotzain katalanak abadetu zituen arrasatearrrak. Lehenengo San Frantzisko parrokian jantzi ziren aurreneko meza



esateko, eta handik San Juan parrokiara joan ziren prozesioan. Meza esan ostean, berriro ere prozesioan bueltatu ziren San Frantziskora, jantziak aldatzera. Hain zuzen ere, argazkiak une hori jasotzen du: San Juan parrokiatik San Frantziskora zihoazenekoa. Sasoi hartan, ospakizun gehienak

Centro Catolicon egiten zituzten. Eta, abadeek ere hala egin zuten. Senide guztiakin egon ziren han, gotzaina ere tarteko zela.

Ikusten duzue, jai handia izan zen egun hura arrasatearrendako. Herritar ugari irten ziren kalera. Bestalde, eta argazkiko etxeetako

balkoieta begiratz gero, ixa bat duen bandera bat ikusiko duzue: Circulo Carlista zegoen han.

Argazkia: Espe Lizarralde.
Informazioa: Espe Lizarralde.
Urtea: 1953

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Biteri etorbidea eta parkinga

Seguruenik, Biteri etorbideko irudiak izango dira atal honetan gehien sartu ditugun argazkiak. Biteri etorbideko horrenbeste argazki egoteko, argi dago orain dela urte batzuk leku hura mondragoetarren gustukoa zela. Etorbide garrantzitsua zen: Portaloia eta Union Cerrajera lantegia lotzen zituen, eskola ere han zegoen, baita taxi geltokia ere.



≈ 1958 Argazkiaren eskuinaldean Biteri Eskola ageri da. Portaloia parez pare dago eta ezkerreko eraikina Resusta sendiarena zen.



2003 Udalaren proiektua betetzen bada, eskuinaldean azaltzen den parkinga lur azpikoa izango da. Biteri etorbidea oinezkoendako izango ote da?

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711768

LAKET
Bonaventure
Diesel
Pepe
Levis
Otalora z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72


Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak



*Eraman plazerra
zure etxera*

 **gelatzu s.l.**
Zubillaga auzoa 1 • OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 • Faxa: 943 78 15 51



ALDEDI

ALDEDI

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



Edertasun Gida

NATURALITASUNEZ ARGALDU

Era osasuntsuan eta albo-ondorio barik argal egoten laguntzen diguten substantzia asko aurki ditzakegu naturan. Egin dezagun gainbegiratuta: te berdeak jarduera lipolitiko handia du, eta horrekin koipea eliminatzea lortzen dugu. Gainera, bere osagai fenoliltikoeak gluzido eta koipeen asimilazioa mugatzen dute.

Fucus Vesiculosus alga ere oso eraginkorra da argaltzeko tratamenduetan, oinarritzko metabolismoa estimulatu egiten du eta. Zuntz kantitate handia duenez, asebetetasun sentrazioa lortzen da.

Kromoa oinarritzko oligoelementua da, oso baloratua, gluzidoen degradazioan hartzen du parte eta, gainera, kolesterol maila erregulatzen du.


JADE
 ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
 ARRASATE
 Tel.: 943 77 16 31

A
 Ile apaindegi mistoa
U
 Estetika zentroa
 Txaro Carrizo
SART

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
 943 77 21 58

BITXORI
 Ile apaindegi



Erdiko kale 52.
 Tel.: 943 79 88 32


Lore

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
 Lurrindegia eta estetika zentroa



VORA O'NEAL Ajae HR CLAMINO BIOTHERM VALMONT

ILE APAINDEGIA
ILEA
 UNISEX

Ferrerías 14. 943 79 87 62

Edertasun Gidan parte hartzeko, deitu 943 71 23 91 telefonora